



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.06.26

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita seian, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Idazkaria:	1. - Aurreko akta onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	2 Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa: 2018ko ekarpen finkoa eta hainbat faktura.
Kontuhartzailea:	3. 31/2018 eta 32/2018 faktura-zerrendak.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko ekainaren 18an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPEN EKONOMIKOA: 2018KO EKARPEN FINKOA ETA HAINBAT FAKTURA.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, 2014. ekitaldian, onartu zituen mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten ekarpenak finkatzeko irizpide berriak. Irizpide hauek bilketa-sistema desberdinak egotean dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2018ko urtarrilaren 17an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2018ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosaldeko Mankomunitateak Tolosako Udalari dagokion zati finkoaren ekarpenaren agiria aurkeztu du.

Gastu estrukturalak	165.779,00
Bilketa gastuak	896.177,00
Tratamendu gastuak	35.483,00

Guztira 1.097.439,00

Kontuhartzaitetzan gastu honen kontraituak egin dira (AD-559-560-561)

Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu.

2018ko urtarrileko faktura

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	147.789,81
Diru sarrerak	27.918,06

Guztira (2018ko urtarrila) 119.871,75

2018ko otsaileko faktura

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	149.335,05
Diru sarrerak	22.635,46

Guztira (2018ko otsaila) 126.699,60

2018ko martxoko faktura

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	143.650,75
Diru sarrerak	23.192,67

Guztira (2018ko martxoa) 120.458,08

2018ko apirileko faktura

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	143.641,24
Diru sarrerak	21.642,72
Diru sarrerak (2017)	56.642,72

Guztira (2018ko apirila) 65.089,22



TOLOSAKO
UDALA

2018ko maiatzeko faktura

Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	145.783,40
Diru sarrerak	22.824,12
Guztira (2018ko maiatza)	122.959,28

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako ekarpen finkoa, hau da, 1.097.439,00 euro.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak, zati aldakorrari dagozkionak:

2018 Urtarrila	119.871,75
2018 Otsaila	126.699,59
2018 Martxoa	120.458,08
2018 Apirila	65.089,22
2018 Maiatza	122.959,28

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari.

3. 31/2018 ETA 32/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **31/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.333,22 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.-31 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **32/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **205.329,60 €**-koa.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 32 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA